

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
LANDER MUÑAGORRI

Altzo-Amezketak (Gipuzkoa)

Txikiak bai,
exkaxak ez

Amezketak erreken ibarrean, Aralar mendikatearen altzoan, lasaitasunez betetako bi herrixka pausatzen dira. Landa arkitekturako etxebizitza esanguratsu ugariaren jabe, Altzo eta Amezketako lurak pertsonaia entzutetsuen jaioterri izan dira.

Ibilbidea Alegian hasiko dugu, Oria ibaiaren ertzetik gora abiatzen den errepidea hartuta; igotzen hasi eta berehala, Altzo-Azpira iritsiko gara. San Salbador elizaren inguruan zabalitzen da auzoa, handik igarotzen den erreka-bideari egokituta. Duela urte batzuk, elizan egokitze lanak egiten ari zirela, erromaniko garaiko hormak topatu zituzten, eta haiek aprobetxatuz kriptak bat zabaldu zuten. Eraikina Gipuzkoako jaunak eman zien San Juango beneditarrei 1025. urtean, eta

hori egiaztatzen duen agirian Gipuzkoako probintziaren aipamenik zaharrenak daude jasota.

Bidean aurrera, Errota-txiki, Konde-errota eta Ipintza Haundi baserria bistaratuko ditugu; azken hori, Altzoko Handiaren jaiotetxea. Migel Joakin Eleizegi (1818-1861), edo Altzoko Handia, gaztaroan izan zuen gaixotasun baten ondorioz bi metro eta 40 zentimetroko garaiera izatera iritsi zen. Haren handitasunaren lekuko izateko

aukera edukiko dugu bere jaiotetxean. Egiazko neurriekin egindako Eleizegiren eskulturaren aldamean jartzean jabetuko gara gizon-tzar haren tamainaz.

Altzo-Azpitik aurrera doan bideari jarraitzen badiogu, Altzo-Muinora iritsiko gara txango lasai eta atseginean. Bi auzoak sakabanatuta daude, eta hori dela-eta garai batean elkarren independente ziren. Bazuten akordio bat ordea. Haren arabera, bateko nahiz besteko alkatea hautatzen zuten

Aralar mendikatea nabarmentzen da Tolosaldeako inguru honetan. Argazkiaren ezkerreko aldean, Altzoko herri-gunearen zati bat.





Landa arkitekturako adibide esanguratsuak aurkituko ditugu ibilbidean. Eskuineko argazkian, Amezketara, muino artean gordeta.

txandaka, urtero. XVII. mendean jaso zuen Altzok hiribildu titulua, 1374tik Tolosaren mende baitzegoen herria, Amezketaren gisan.

Behin herriaren gune nagusian, enparantza nagusia ikusiko dugu; Altzoko bilgune sozial nagusia eraikin ikusgarriek inguratzen dute, eliza kasu. Herrian apur bat barneratuz gero, Etxeberri, Otsegi eta Lizarribar baserriak topatuko ditugu, landa arkitekturako adibide esanguratsu eta ikusgarriak.

Altzoko errepideari jarraituz, Alegia edo Amezketara joateko bidegurutzera ailegatuko gara. Amezketara errekarari jarraitzen dion

Amezketarrek Fernando gogoan.



errepidean gora abiatuko gara, basoaren gerizpetetik. Bedaio eta Amezketara ibaiek bat egiten duten lekura heltzen garenean Ugarte auzoa topatuko dugu. Gune txikia da, Errosarioko Ama elizaren inguruan pilotutako hainbat eraikinek osatzen dutena. Eliza XVIII. mendean handitua da, baina egun oraindik erromaniko garaiko ate bat gordetzen du, Gipuzkoan garai horretako adibide bakarrenetakoa. Barruan XII. mendeko Andra Mariaren taila bat dago gordeta. Auzoa txikia izan arren, pilotari handi baten sorlekua da: Joxean Tolosa, 1989ko buruz buruko txapelduna eskupilotan, eta gaur egun ETBko pilota emanaldietako esataria.

Erroten bidetik

Errekan gora jarraituz hainbat erroten egingo dugu topo. Garai batean amezketarren ekonomia oinarri nagusienetako bat zen, baina gaur egun geldirik ikusten ditugu errekek oraindik indarrak badauka ere. Errotek bira egiteari utzi diote, eta haien lekua hartu dute paper fabrikek.

Amezketako herri-gunera iritsi eta berehala ikusiko dugu lehenengo interesgune garrantzitsuena, herriko plaza. Udaletxe eta frontoiaz gain, Fernando

Amezketarra (1764-1823) bertsolari eta zirtolari ezagunaren eskultura dago; bera da herriak izan duen pertsonaiaarik entzutetsuenetarikoa bat. Herriaren beheko gune honetan, baserri-etxe ederrak ikus ditzakegu, Letradoenea eta Doloxenea kasu.

Herriak bi eremu nagusi ditu, eta bien artean plazaratxo bat, Errotazar izeneko errota eta guzti. Egun ez dabilen arren, baserri bilakaturik dago, eta urak biltzeko gailuen aztarnak gordetzen ditu oraindik. Amezketako goiko gunera iritsiz gero, San Bartolome eliza topatuko dugu, XVI. mendeko eraikin ederra. Han, oraindik, argizaiolaren errietoaren tradizioari eusten zaio, egun kasik galdua dagoen usadio zaharra.

Ibilbideari amaiera emateko Tourseko San Martin ermitara zuzenduko gara. Parrokia nagusia baino zaharragoa da; XII. edo XIII. mendeko San Martinen irudi bat bazen, egun apaizetxean jasorik dagoena. Nabarmentzekoak dira baselizatik gertu ditugun parajeak. Bide guztian zehar Txindoki ikuspegitik kendu gabe izan badugu ere, hemen mendia gainera eroriko zaigula dirudi. Ibilbideari amaiera emateko leku paregabea gaude, Urzabal eta Arritzaga amildegiak parez pare ditugula. ■

DESCUBRE

TOLOSALDEA

IZAGUTU

EUSKADI

GIPUZKOA

Tolosako Udalak

ARRATZAK

www.tolosalde.net